

Zaintza lehenetsiko bagenu: Errenteriako Zaintza Sare Komunitarioaren azterketa

Jon Lopez Corchero
Euskal Herriko Unibertsitateko ikaslea (UPV/EHU)

COVID-19aren pandemian izan zen derrigorrezko konfinamenduak agerian utzi zuen gure gizartearen hauskortasuna eguneroko jarduerak etetearen aurrean. Hala ere, ekimen solidarioak sortu ziren, hala nola Errenteriako Zaintza Sare Komunitarioaren Sarea, konfinamenduan pertsona ahulenen beharrei erantzun ziena. Artikulu honek sare hori ikuspegi feministatik aztertzen du, zaintzaren kontzeptua zainketa-krisiaren testuinguruan aztertuz. Sarearen sorrera eta funtzionamendua, zaintzalanaren ikusgarritasunean duen eragina eta parte hartu zutenek hautemandako mugak aztertzen dira. Ondorioek eremu publikoan eta komunitarioan zaintza birpentsatzearen garrantzia iradokitzen dute.

GAKO-HITZAK: COVID-19 · Zaintza komunitarioa · Bakardade ez hautatua · Erantzunkidetasuna · Zaurgarritasuna.

If We Prioritize Care: Community Care Network of Errenteria

Forced confinement during the COVID-19 pandemic highlighted the fragility of our society in the face of the cessation of daily activities. However, solidarity initiatives such as the Errenteria Community Care Network emerged that responded to the needs of the most vulnerable during confinement. This article examines this network from a feminist perspective, analyzing the concept of care in the context of the care crisis. The creation and operation of the network, its impact on the visibility of care work and the limitations perceived by the participants will be analysed. The conclusions suggest the importance of rethinking care in the public and community spheres.

KEY WORDS: COVID-19 · Community care network · Unchosen loneliness · Co-responsibility · Vulnerability.

1. Sarrera

COVID-19ak eragindako derrigorrezko konfinamenduak guztiok giltzapetu gintuen gure etxeetan hilabete askotan. Denboraldi horretan, dena gelditu zen, zaintzak merkatuaren logikari jarraitzen ez dion arren. Egoera horren aurrean, komunitate askok sare-eran antolatzea erabaki zuten. Artikulu honek esperientzia horietako bat jasotzen du, hain zuzen ere, Erreterriako Zaintza Sare Komunitarioa.

Sare hori martxoaren 15ean jarri zuen martxan udalak, pertsona zaurgarrienei laguntza emateko, «oinarrizko lehengaiak eskuratzeko izan ditzaketen zailtasunak eta harreman sozialik gabe jasan dezaketek isolamenduak» (Otaegi, 2020/03/15) ekiditeko. Laburbilduz, eta lan enpirikoa egin ondoren, sareak laguntza eskaini zien gehienbat udalerriko adinekoei; eta neurri txikiagoan, baliabide nahikorik ez zuten haur eta gazteei eta etxeko eremuan indarkeria matxistako egoeretan egon zitezkeen emakumei eta LGTBIQ+ pertsoneri.

Era berean, aurreratu daiteke sarearen funtzionamendua, «analisis» atalean luze hitz egingo den arren. Alkatearen deia ostean, 600 lagun inguru boluntario aurkeztu ziren —ni horietako bat izan nintzen—. Horietako gehienak emakumeak izan ziren Berdintasun/Partaidetzako zinegotziak esandakoaren arabera; elkarrizketatutako boluntarioak bi gizon eta emakume bat izan baziren ere. Boluntario gehienek zeregina hartzaileen ongizatea behatzean zetzan, dei telefonikoen bidez egiten zena. Hartzaile horietako askok adinekoak (65 urtetik gorakoak, gehienak emakumeak) ziren eta 100 bat lagun ingururi *bakardade ez hautatua* antzeman zieten; elkarrizketatutako hartzaileen kasua hain zuzen.

Horri dagokionez, lan honen helburua da Erreterriako Zaintza Sare Komunitarioaren hurbilketa bat eskaintzea, COVID-19aren pandemiaren eta horrek areagotu duen zaintza-krisiaren testuinguruan. Esperientzia hori (pandemiaren zatirik handienez martxan egon baino ez baitzen) ikuspegi feministatik aztertu da. Elkarrizketatuen esperientzia guztietatik, zaintzaren kontzeptuan zentratu da nagusiki egilea; zaintza-sare publiko-komunitario batean, testuinguru jakin batean: zaintza-krisian, COVID-19aren testuinguruan.

Horretarako, Erreterriako Zaintza Sare Komunitarioaren genesiaren eta sorreraren azterketa egingo da, hura sortzen lagundu zuten faktoreak ezagutzeko eta elkarrizketatuen bizipenak (elkarrizketa sakonak erabiliz) testuinguru pandemikoan eta zaintza-krisian kokatuz. Era berean, zaintza-sareak zaintzaren kontzeptuaren inguruan izan zitzaizkeen potentzialtasunak aztertuko dira, zaintza-lana ikusarazteari dagokionez eta sarearen beraren jarraitutasunari dagokionez. Azkenik, sareak izan zituen mugetan sakonduko da, bederatzi elkarrizketatuen ikuspegitik (politikariak, udal-technikaria, boluntarioak eta hartzaileak); era berean, zaintza-lanen horniduraren erantzukizunari buruzko pertzepzioa ezagutzeko bilatuko da (udalarena edo komunitatearena).

2. Ikerketaren helburuak

Kontuan hartzekoa da zaintza-sare komunitarioek ez dutela ibilbide akademiko handirik izan; alabaina, pandemiaren leherketaren ondoren, gero eta esperientzia gehiago ari dira argitaratzen aldizkari akademikoetan. Beraz, ikerketa hau esplorazio motatik planteatu da, honako kezka hauetatik (ikerketa-galdera gisa) abiatuta: zertan zetzan Errenteriako Zaintza Sare Komunitarioa eta nolakoak izan ziren sarea diseinatu zutenen, bertan parte hartu zutenen eta zainketen hartzaileen esperientziak zaintza-nozioaren barruan?

Kezkak berak, *operazionalizatuta*, **helburu nagusia** emango liguke: Errenteriako Zaintza Sare Komunitarioaren ekimena ezagutu eta zaintzaren inguruan sorturiko esperientzien berri ematea. Horretarako, helburu espezifiko hauen bitartez esperientzia hori ezagutaraztea jomuga dugu:

- HE1: Ekimenaren genesisia eta garapena ezagutzea, pandemiak areagotutako zaintza-krisiaren eta krisi zibilizatzailearen testuinguru batean.
- HE2: Ekimenaren potentzialtasunak identifikatzea, zaintzaren, zaintza-lanen ikusgarritasunaren eta sarearen beraren jarraitutasunaren testuinguruan.
- HE3: Ekimenak izan dituen mugak ikertzea: alde batetik, elkarrizketatu bakoitzak bere ikuspuntutik (Administrazio publikotik, herri-partaidetatik eta arreta-zerbitzuen hartzaileetatik); eta, bestetik, zainketen horniduraren inguruko Administrazio publikoaren eta Herriaren arteko oreka aztertuz.

Helburu horiei dagokienez, ikerketa-galderak hauek dira:

- IG1: Zein da ekimenaren genesisia eta nola gorpuztu da ekimen horren garapena?
- IG2: Ekimen horren zer potentzialtasun (zaintza, zaintza-lanak ikusaraztearen eta sarearen beraren jarraitutasunaren inguruan) identifikatu ditzakegu?
- IG3: Zer muga izan ditu ekimen horrek elkarrizketatuen ikuspegi kokatuetatik eta zaintza-lanen horniduraren orekaren (udala-komunitatea) testuinguruan?

3. Krisiek eragindako garai-aldaketa

Zaintza-sarea bere osotasunean aztertzeko, egokituz jotzen dut lan hau eta aztergaia testuinguru zabalago batean kokatzea, ez baikaude dagoeneko aldaketa-garai batean, garai-aldaketa batean baizik (Subirats, 2011, 5. or.). Horrexegatik, Errenteriako Zaintza Sare Publiko-Komunitarioaren genesisia eta garapena aztertzen eta kokatzen laguntzearren, krisi zibilizatzailearen kontzeptua mahaigaineratuko dugu.

Hala ere, kontzeptu horri buruz hitz egiterakoan, ezinbesteko adjektibo bat ahaztu ohi da: krisi zibilizatzaileaz ari garenean, krisi zibilizatzaile patriarkal-kapitalistaz mintzo gara, zibilizazio gisa definitu ohi diren ezagutzei eta ohiturei eragiten baitie. Izan ere, «gure jendarteetan indarrean eta ezarrira dauden balioak, eta ez banku eta enpresa batzuk bakarrik, bankarrotan sartu dira» (Fernández Buey, 2009, 42. or.).

Hala ere, Fernández Buey-k honako galdera hau egin zuen: «Nahikoa al da Erromako Klubaren lehen txostenetan agertzen zenaren antzeko deskribapena egitea zibilizazio-krisiaz hitz egiteko?» (2009, 45. or.). Horri erantzunez, Fernández Buey ezetz uste du, duela hogeita hamar urte zientzialari sozialek zalantzak baitzituzten krisiak erakunde politiko eta kulturelei eta balio-sistemari ere eragiten ote zien. Haren iritziz:

Una crisis de civilización tendría que caracterizarse como un momento histórico en el cual llegan a un punto crítico no sólo las estructuras socioeconómicas, sino también las instituciones políticas y culturales, así como el sistema de valores que configura [...]. Una crisis de civilización, [...] es una crisis no sólo global sino *total* (Fernández Buey, 2009, 45. or.)

Krisi total horren arlo garrantzitsu bat zaintza-krisia da dudarik gabe. Krisi hori honela definitzen du Sandra Ezquerrak: «Zaintza-krisiarekin, biztanleriaren pertsona askok beren burua zaintzeko edota beste bat zaintzeko dituzten zailtasunen larriagotzeari buruz ari gara» (2011, 176. or.). Alde horretatik, zailtasunak, funtsean, pertsonen ongizatea bermatzeko gaitasun *sozietario* eta politikotik etorriko lirateke (*Id.*). Zailtasun horiek bi faktoreren ondorioz sortuko lirateke: bata, zaintza-banaketaren eredu hegemonikoaren ahultze-prozesu konplexu batengatik, eta, bestea, sistema sozioekonomiko osoa berregituratzearengatik (Pérez Orozco, Amaia; 2006).

Zaintza-krisiarekin harremana duen beste kontzeptu esanguratsu bat jendarte-ugalketarena da, krisian ere badagoena. Jendarte-ugalketaren krisi hori honela ulertzen du Pérez Orozco: «Ugaltzeko itxaropen material, afektibo eta erlazonalak betetzea ahalbidetzen duten baldintzak jartzeko zailtasunen gehikuntza» (2014, 203. or.). Nancy Fraser-en arabera (2016), jendarte-ugalketaren krisi hori bizitza sozialaren pribatizazioak eta merkantilizazioak sortu dute; hori erakunde publikoen deskonposizioan eta desberdintasun ekonomiko eta sozialaren gehikuntzan agertzen da. Fraserrek dioenez, krisi horrek neurritz kanpo eragiten die emakumeei, historikoki zaintza- eta ugalketa-erantzukizun gehienak beren gain hartu baitituzte; lanaren sexu-banaketari (Kergoat, 1998) dagokionez

4. Zertaz ari gara zaintzaz hitz egiten dugunean?

Ikerlan honen abiapuntu epistemikoak «ezagutza kokatu»aren (Haraway, 1995 eta Harding, 2004) alde egiten du. Horregatik funtsezkoa iruditzen zait teoria feministak zaintzaren kontzeptuari buruz esaten digunari erreparatzea. Horretarako, Mari Luz Estebanek (2017) «Los cuidados, un concepto central en la teoría feminista: aportaciones, riesgos y diálogos con la antropología» izeneko artikuluan adierazitako gai batzuk neureganatuko ditut. Mendebaldean nagusi den zaintzaren kontzeptualizazio bat Finch-ek proposatutakoa da (1989, Esteban-en, 2017, 43. or.): zaintzak «pertsonei ongizate fisikoa, psikikoa eta emozionala ematea helburu duten jardueri dagozkiela» esango luke berak

Hala eta guztiz ere, teoria feministaren barruko zaintzaren nozioak proposamen teoriko ugari ditu. Horri dagokionez, Mari Luz Estebanek *continuum* baten barruan

kokatzea proposatzen du: mutur batean Carol Gilligan-en (1982) «zaintzaren etika» teorizazioa koka genezake, eta bestean, berriz, lanaren sexu-banaketa zorrotzarekin lotutako ikuspegi ez amatalista (Esteban, 2017, 35. or.). Laburbilduz, alde batean aintzatespen-ikuspegia egongo litzateke, eta bestean birbanaketa-ikuspegia, Nancy Fraser-en (2000) terminoetan. Azkenik, Mari Luz Estebanek (2017) proposatzen du zaintzaren teorizazioa beste kontzeptu batzuekin osatzea: *elkar laguntzea*, *autoarreta* eta *elkarrekikotasuna*.

Puntu honetara iritsita, Pérez Orozcok aztertutakoari helduko diogu zaintzaren eta etxeko lanen arteko bereizketa aztertzeko. Izan ere, ekonomia feministarentzat, etxeko lanaren teorizazioa funtsezkoa izan zen gerora zaintzaren nozioa garatzeko: «Autokontsumorako ondasunak eta zerbitzuak sortzen dituen lana, familiaren berehalako kontsumorako erabilera-balioak baina ez aldaketa-balioak sortzen dituenak». (Pérez Orozco, 2006, 94. or.). Kontzeptu horren bilakaerak *ugalketa* nozioaren garapena ekarri zuen. Ideia hori ekoizpen-ugalketa ikuspegitik abiatzen zen, eta, horren arabera, jendarte-ugalketa zen inguruko ardatza, eta gainerako sistema sozioekonomikoa antolatzen zen. Horrela, analisi ekonomikoaren arretagunea ez zen etxeko lana, ugalketa baizik. Ugalketa horrek bi dimentsio izango lituzke: biologikoa (espeziearen ugalketa) eta egunerokoa (ugalketa soziala) (*Ibid.*, 99. or.).

Horri dagokionez, zaintza ekoizpenak sostengatzen du, itun sozial ikusezin bat dagoen heinean. Isilbidezko itun hori Rousseau-k (1983) sozietate ilustratuen kontratu sozialari buruz egindako ikuskeratik dator. Kontratu horren bidez, eremu publikoa (agora, plaza) eta eremu pribatua (etxea, familia) ezartzen ziren. Halere, Carole Pateman-ek (1995) salatu zuen bezala, banaketa hori (familia nuklearrean islatzen dena) patriarkatuaren oinarri sendoenetariko bat da. Era berean, naturalizazio hori ez dator ezerezetik, baizik eta indarkeria sinbolikoaren (Foucault, 1999) eta indarkeria materialaren operazioak eragiten du. Horretarako hainbat tresna erabiltzen ditu: genero-rolak, estereotipoak, kultura, besteak beste. Tresna, praktika, diskurtso eta mekanismo horiek patriarkatua birsortzen dute eta ezinbestekoak dira zaintzaren afera ulertzeko.

5. Zaintza-lanak EAEn

Haria gure azterketa-eremu geografikora ekarriz, EAeko patriarkatua aztertzeko eta mugatzeko saiakerarik garrantzitsuenetako bat *EAEko Demokrazia patriarkala* (2017) liburua da. Lan horretaz guztiaz baliatuko gara zaintza-lana gure autonomia-erkidegoan kokatzeko. Nolanahi ere, aurreko lerroek erakusten dute zaintza-lana, zentzu zabalenean, hainbat faktorek zeharkatzen dutela, batez ere emakumeetan gorpuztuta.

Zalantzarik gabe, etxeko lanak eta zaintzako lanak harreman zuzena dute familiaren erakundearekin. Familiak Estatuarekin harreman argia duen bezalaxe. Beraz, demokrazia patriarkalaren liburuak proposatzen du erakunde horiek ongizate-estatuaren barruan ulertzea. Izan ere, Estatuko erakunde mota hori aztertzeko, haren kalitate demokratikoa ulertu behar da, zeinak lotura zuzena baitu patriarkalizazio-mailarekin eta pribatizazio-, finantzazio- eta merkantilizazio-mailarekin (Goikoetxea

et al., 2017, 133. or.). Hala, bada, EAEko patriarkalizazio-maila *desmerkantilizazio*-eta *desfamiliarizazio-mailaren* arabera ulertzearen alde egiten dute. Horrela, lau ongizate-erregimen mota bereizten dituzte: mediterraneo, liberala, sozialdemokrata eta kontserbadorea (*Id.*).

EAE Mediterraneoko ongizate-erregimenaren ereduan kokatuko litzateke, eta eredu horrek honako ezaugarri hauek izango lituzke: ongizatearen oinarria lan-errenta da eta ez produktibitate jakin bat, jendarte-ongizatearen gastua BPGarekiko apaltzen ari da, gazteen eta emakumeen emantzipazio falta dago, feminizazio handia dago RGIa eskatzen duten 65 urtetik gorako pertsonetan, errotuta dago adineko pertsonak beste pertsona batzuekin (senideak edo zaintzaileak) bititza haiek zaintzeko, eta emakumeek etxeko lanaren % 90,6 hartzen dute (Goikoetxea et al 2017, 247-253. or.).

Hala ere, zaintza-lanen eredu familiarista hori arrakalatu egin zen COVID-19aren pandemiaren ondorioz bete beharreko konfinamendua indarrean jarri zenean. Era berean, zaintza-kate globalaren (Federici, 2010) krisia areagotu zen. Lanuzte hori gehien jasan zuten pertsonak, sarreran adierazi dugun bezala, zaharrak izan ziren. Egoera horren aurrean, Euskal Herriko komunitate askok —nahiz eta guk Errenterian jarriko dugun arreta— zaintza-sareak antolatu zituzten garai hartan eguneroko bizitza bizigarriagoa izan zedin.

Agertoki horretan, Arrietak eta Zuñigak (2021, 68. or.) komunitatearen kontzeptua- ren harira eskaintzen duten proposamena analitikoki baliozkoa suertatzen zaigu oraingo honetan: «Komunitatea parte hartzeko prozesu bat (edo batzuk) izan liteke, espazio fisiko jakin batean garatzen dena, non bertan diharduten pertsonak pertenezia/elkarrekikotasun osagai psikologiko bat garatzen duten». Komunitatea «harreman-prozesu dinamikotzat» (*Ibid.*, 68-69. or.) hartzea autoreek *welfare mix* deitzen dutenaren barruan (ongizatearen eta zaintza-horniduraren pentagonoari dagokionez: Estatua, merkatua, hirugarren sektorea, komunitatea eta familia).

6. Gobernantza, kapital soziala eta sare komunitarioak

Gure kasuan *welfare mix* horretan ez legoke Estatua, udala baizik. Horregatik Errenteriako Udalaren egitura administratiboa aintzat hartzea beharrezkoa suertatzen zaigu, zaintza-sare publiko-komunitarioa nola sortu eta nola gauzatu zen kokatzeko. Administrazio-eredu hau nahiko berezia da, eta erakunde publikoaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko hausnarketa-aldi baten ondoren sortu zen. Horren bidez zera ondorioztatu zuten: «Erakunde eraginkor eta efizienteagoa izango bagara kudeatzeko modua aldatu behar genuela eta Udalaren erakunde antolaketa eraberritu behar genuela» (Errenteriako Udala, 2020).

Alde horretatik, eraginkortasun eta efizientzia hori lortzeko, udal-osaera organiko berritu beharko litzateke, antolaketa sinplifikatzeko eta arloen eta sailen arteko koordinazioa hobetzeko helburuarekin. Horrela, bada, 2016an *Zuzendaritza taldea* sortu zen. 2022tik aurrera *Koordinazio Gune Orokorra* izendatu zen, zuzendaritzaz arduratzeaz gain, «koordinazioa bultzatzeaz, parte hartzen duten lerro guztiek

estrategian lerrokatzearen bidez» (Errenteriako Udala, 2020) ere arduratzeko nahiarekin. Era berean, sailen antolaketa hiru eremu handitan egituratu zen: *Antolaketa, Lurraldea eta Herritarrak*¹.

Adierazitako udal-administrazioaren eredu hori ez da ezerezetik sortzen, gobernantza-ikuspegi berezi batetik baizik: hots, Gobernantza Publiko-Komunitarioa (EKP2²). Labur esanda, gobernantza-eredu horrek gai publikoetan modu zuzenagoan partaidetza moduak aztertzea, betiere demokrazia ordezkatzaillearen krisiari (Mair, 2013) aurre egiteko.

Ikuspegi orokor batetik, demokrazia ordezkatzaillearen krisiaz hitz egitean, herritarrek alderdi politikoez, eragile politiko tradizionalez eta erakunde politikoez duten mesfidantzaz ari gara. Mesfidantza hori politika formalarekiko jarrera kritiko-pasiboa dela esan daiteke. Izan ere, herritar askok ikusten dute gero eta distantzia handiagoa dagoela ordezkari politikoez, eta, horrela, ordezkariaren edukia hustu eta identifikaziorik ezaren sentimendua elikatzen da (Subirats, 2018).

Bestalde, ikuspegi teorikoago batetik eta aurrekoa osatuz, Ibarra eta Bergantiños-ek (2018) demokrazia ordezkatzaillearen krisia zerrendatzen dute hiru frontetan: «Ordezkariaren hustuketa, zuzeneko sarbideen ahultasuna eta desoreka, eta desberdintasunaren iraunkortasuna eta balizko larriagotzea» (*Ibid.*, 19. or.). Haiek azpimarratzen dute krisia ez dagoela demokrazian *per se*, prozesu demokratikoan baizik; beraz, krisia «kate sekuentzialaren —berdintasuna, korrespondentzia, operatibitatea— barruan disfunczioak sortzean sortzen da, eta horrek ahalbidetzen du osotasun demokratikoa» (*Ibid.*, 19. or.). *Demokrazia erlazionalaren* (Ibarra, 2010) ikuspegi horretatik, ez dago erabateko demokraziarik honako hauek ez daudenean:

Condiciones sociales, políticas y culturales iguales para todos/as [igualdad] hacen posible que las voluntades de los/as ciudadanos/as coincidan [correspondencia], traduciéndose en consecuencias reales —operatividad—, y en mayor o menor grado, a través de diferentes procesos, con las decisiones políticas de representantes y gobernantes políticos (Ibarra eta Bergantiños, 2018, 13. or.)

Korrespondentzia hori hobetzeko, berebizikoa deritzot kapital sozialaren kontzeptuan gelditzeari. Akademiko askok garatu dute kontzeptu hori (Lin, 2001; Coleman, 1988; 1990; Bourdieu, 1986), baina oraingoan Robert Putnam-ek (2011) eskaintako teoriari bakarrik erreparatuko diot. Putnamek argudiatzen du harreman bertikalez (hierarkikoez) lehia sustatzeko joera dutela, eta harreman horizontalez (kooperatiboez), berriz, lankidetzaren sustatzen dutela. Harreman bertikalak dituzten erakundeek hertsapenaren eta indarkeriaren mende egoteko joera dute, kontrola mantentzeko. Aldiz, harreman horizontaletan oinarritutako erakundeek autogobernu eraginkorragoa ahalbidetzen dute eta kideen parte-hartze aktiboa sustatzen dute.

Putnamen Kapital Sozialaren Teoriaren oinarria da harreman horizontalak eta kooperatiboak sustatzen dituzten jendarteek tradizio zibiko sendoak garatzen dituztela. Tradizio zibiko horiek «kapital sozial» bat sortzen dute, jendarte-antolamenduaren ezaugarri multzo bat dena, arauak, pertsonen arteko harreman-

1. Gure udaleko elkarrizketatuek *Herritarrak* eremuan lan egiten dute

2. Errenteriako Partaidetzako zinegotzia

sareak eta konfiantza barne. Putnamek dio kapital soziala borondatezko elkarteetan parte hartzetik sortzen dela, eta hiru elementuk osatzen dutela: elkarrekikotasun orokorreko arauak, konpromiso zibikoko sareak eta konfiantza orokortua.

Sare komunitarioen testuinguruan, Putnamen kapital sozialaren teoriak iradokitzen du komunitate batean harreman sozial sendoak egoteak prozesu parte-hartzaileetan sakontzea erraztu dezakeela. Izan ere, ikerketa hau zaintzaren alderdian zentratuko bada ere, ez dugu ahaztu behar (aurrerago ikusiko dugun bezala) sarea udaleko Partaidetza alorretik gidatu zela prozesu parte-hartzaile gisa.

Hori horrela izanik, Gradu Amaierako Lan bat aipatu behar dut, hain zuzen Errenteriako Zaintza Sarea aztertzea ikuspegi parte-hartzaileago batetik helburu zuena. Lan horretan, Unai Bellotak sarearen kalitate demokratikoa ebaluatu zuen, eta ondorioztatu zuen sarea «erregulazio-esperimentu kontraneoliberalizatzaile gisa kalifikatu» (Bellota, 2021, 36. or.) zitekeela. Era berean, adierazi zuen burututako esperientzia parte-hartzaileek sarearen lorpenak erraztu zituztela eta (defizit batzuk egon arren) sareak kalitate demokratiko ona izan zuela. Azkenik, sarea Marchioniren Hiru Zirkuluen Teoriaren (2009, 8-9. or.) barruan kokatzen zuen, eta udala erdian zegoen, bigarren zirkuluan boluntarioak eta auzo-mugimenduak, eta parte hartu ez zuen biztanleria kanpoan.

7. Diseinu metodologikoa

Helburuetan aurreratzen zen bezala, ikerlan hau esplorazio motakoa izango da. Era berean, ikerketa kualitatiboa izango da eta ez du hipotesirik planteatuko: zaintza-sareak sortutako esperientziak aztertu nahi baititugu, aldez aurreko suposiziorik egin gabe. Izan ere, subjektibotasunetik ikertu nahi da pertsonen fenomenoei buruz duten interpretazioa, eta, beraz, ez dago neurketa posiblerik, ezta kontrastatzeko gaitasunik ere.

Gainera, ikerlan honen abiapuntu epistemologikoak «ezagutza kokatuak» deituriko proposamen feministaren alde egiten du. *Kokaleku* horrek ikertzailearen eta subjektuaren askotariko jarrerak ezagutzea dakar: pertsona bakoitza posizio, identitate eta ikuspuntu anitzen sare konplexu batean txertatuta baitago. Beraz, formulatzen dugun proposamen epistemologikoaren helburua ez da ezagutza orokor eta objektiboa sortzea, baizik eta partziala eta zehatza

Hau guztia gorpuzteko bi bide aukeratu dira: sakoneko elkarrizketaren teknikaren aldeko apustua egin da, eta analisi-teknika Diskurtsoaren Azterketa Kritiko Feminista (DAKF) erabiliko da. DAKF delakoa aurrera eramateko, aldez aurretik, Ruth Wodak eta Michael Meyer-en (2003) eta Teun Van Dijk-en (2012) Diskurtso Analisi Kritikoaren metodologiak baliatuko gara: elkarrizketatutako diskurtsoen *proposizioak* («perpausak») eta makroproposizioak («kontzeptuak/gaiak») aztertuz. Era berean, Jokin Azpiazuren (2014) gomendioak aintzat hartuko ditugu DAKF tresna borobiltzeko.

Sakoneko elkarrizketei dagokienez, hiru gidoi ezberdin planteatu dira, elkarri-riketatuaren jatorrizko multzoa kontuan izanik: udaletik (Gizarte Zerbitzuetako eta

Berdintasun/Partaidetzako zinegotziak, eta berdintasun-teknikaria), boluntarioen taldetik (hiru) eta hartzaileen taldetik (hiru). Hona hemen elkarriketatuen profilak:

KODEA	TALDEA	SEXUA	ADINA	TALDEAREN EZAUGARRI NAGUSIAK	
				Saila	Denbora (legegintzaldia)
ELKP1	Politikaria	Gizona	Heldua	Gizarte Zerbitzuak	2
ELKP2		Emakumea		Berdintasuna/ Partaidetza	2
ELKT	Udal-teknikaria	Emakumea	Heldua	Saila	Denbora (urteak)
				Berdintasuna	7
	Boluntarioa			Lanbidea	Boluntario-esperientzia
ELB1		Gizona	Adinekoa	Udaltzaina	Auzo-elkartea
ELKB2		Emakumea		Administraria	Kulturgintza
ELKB3		Gizona		Irakaslea	Hezkuntza
		Egoera zibila		Egoera mentala	
ELKH1	Hartzailea	Emakumea	Adinekoa	Alarguna	Bakardade ez hautatua
ELKH2					
ELKH3					

8. Analisia³

8.1. Zaintza-sarearen sorkuntza eta garapena

Errenteriako Zaintza Sare Publiko-Komunitarioaz hitz egitea kontzeptu zehatz batez hitz egitea da: *Marko Publiko-Komunitarioa*. Dударik gabe, sarea sortzeko eta garatzeko faktore esanguratsuen da. Esanahi komunaren esparru horri esker, 600 boluntario inguru (ELKP1 eta ELKP2) lortu zituen zaintza-sareak.

Herritarren aktibazio horretan gehiago sakondu nahian, hiru boluntariok adierazi zuten boluntario gisa parte hartzea bultzatu zituena **laguntzea** izan zela: «Jendea laguntzea, ba ikusita ze egoera zegoen... konfinamenduko historiaren ondorioz, egon eza eta hola... [...] Eta orduan hori dena ikustean pentsatu nun zeozer egin nezakeela han» (ELKB3). Beste boluntario batek hau esan zidan: «Zure izakeran ba zerbait da... harro bat, o sea holako gauzetan parte hartzea. Pentsatzen det nolabait zerbait egin badezaket ba» (ELKB2).

³ Elkarriketen pasarteak hitzez hitz erantsi dira hemen, jatorrizko bertsioa mantendu nahian ez dira euskara batura egokitu

Boluntario horien hitzak arras adierazgarriak izango ez balira bezala, kargu politikoetako pertsonak ere herritarren parte-hartze hori espresuki aipatu zuten:

Baino egia da ere martxan jarri baino lehen ja udalean hasi ginela deiak jasotzen. Jende anonimoa batzutan, bestetan ba auzo elkarteak: «ostra gu zerbait jarri nahi degu abisatu...». Esan nahi det, hor egon zen sortzen «caldo de cultivo» bat (ELKP1).

Eta beno ere gertatu zen, herri-mugimendutik sortu zirela zaintza-sare horiek (ELKP2).

Era berean, zaintza-sareko hartzaile izan ziren pertsona batzuek hau esan zidaten:

Porque ya vivo solita tanto tiempo. Y ahora me siento mucho más sola (ELKH1).

Días y días aquí metida sin salir [...]. Unas veces me sentaba y leía otras veces a ver un rato la tele, que ya se cansaba una de todo... Y así era majo yo en casa en casa, en casa, si he estado más de tres meses sin salir... ¿qué te crees? Eso es muy... se pasa mal eh y sola, sola, sola... (ELKH2).

Jendeari laguntzea, herriko pertsona zaugarriei laguntzea «egoera hortan krak gauza askok egin zuten» (ELKP1) testuinguru batean. Era berean, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak esan zigun berak «zirkuskribitzen det [zaintza-sarea] batez ere konfinamendu garai» (ELKP1) bati, non «errezago zen gauza batzuk martxan jartzea kontestu horretan» (ELKP1). Hala ere, ekimen horren berezitasunetako bat zera izan zen: zaintza-sarearen sorkuntza ez zetorrela Gizarte Zerbitzuen sailetik, Partaidetza sailetik baizik:

Ni gehienbat zaintza-sarearekin harremanu nintzen Partaidetzatik, ez hainbeste Berdintasun Sailetik. Eta gehienbat guk eraman genuen lidergotza kudeaketa guzti honena [...] horren sorkuntza edo lidergotza politikoa nik eraman nun eta lortu genuen momentu horretan ba udalean teknikari ezberdinen arteko ekipo bat, interdisziplinarra izaten saiatzen saiatu zena (ELKP2).

Modu berean adierazi zuen berdintasun-teknikariak: «Berdintasun Sailarekin zeukan harremana zen zinegotzia berdina zela eta bera bultzatzen zegoenez... hori» (ELKT). Are gehiago, sarea garatzen zegoen unean haxe komentatu zidan: «Orduan hori alkatetzatik bideratu zen hasieran gero partaidetza eta hortik bideratu» (ELKT).

Era berean, Partaidetzako zinegotziak esan zidan «jo funtzio publikoan gaude baino gure ardua politikoa eta etikoa da ere hemen honetarako tresna bat jartzea. Ze horrela ulertzen genuen. Baino beno zalantzak nituen herritarrak parte hartuko zuten edo ez» (ELKP2). Zentzu horretan, «alde batetik, izan zelako ezohiko praktika bat udalak egin zuena eta hor bai guk behintzat perzibitu genuen udalarekiko behintzat konfiantza minimo bat zegoela herritarren partetik [...] erantzunkidetasuna edo korresponsabilidade horren printzipioan oinarrituta lanketa partekatuen oso aldekoa naiz» (ELKP2). Eta gobernantza publiko-komunitarioa horrez harago:

Udalak bakarrik ezin zuela [Egoerari aurre egin]. Erantzunkidetasun bat behar genuen: udalaren, herritarren eta hirugarren sektorea edo enpresen artean. Eta

horregatik deitu genion lanketa publiko-komunitarioa. O sea, ezinbestean behar genuela laguntza. Eta gainera, segur aski, guztion ardura zela elkarrekin erantzutea (ELKP2).

Ildo horretatik, hauek izan ziren zaintza-sarearen hartzaile nagusiak: adineko pertsonak, garai hartan derrigorrezko ikasketak etxetik egiten ari ziren ikasleak eta etxean indarkeria jasaten ari ziren LGTBI taldeko pertsonak eta emakumeak. Bestalde, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak beste talde zaugarri bat ere identifikatu zidan: ezkutuko ekonomia deritzon horretan lan egiten duten pertsonak. Era horretan, zaintza-sarea «txoke-sare» (ELKP1) bezala antolatu zen: «Zetorrenari ez genekielara oso ondo zer zetorren, baina zerbait oso potentea zetorrela aurre egiteko» (ELKP1).

Bestalde, zaugarritasun horien guztien artean, kolektibo nagusia adinekoena izan zen. Sektore horrek jaso zuen arretarik handiena; izan ere, boluntario gehienak —nik jaso ditudan esperientzietatik, behintzat— kolektibo horri laguntzeko jarri ziren. Hala ere, elkarrizketatu nituen boluntarioetako bik ere lagundu zieten ikasleei beren ikasgaiekin.

Boluntarioen lana adineko horiei bi dei-txanda egitea izan zen. Boluntario baten ikuspegitik prozedura honako hau zen: «Eta hori adin batetik aurrera adin bateko jendea pasatzen ziguten zerrenda eta izen-abizenak eta telefonoak eta... deitu egiten nuen pertsona haiei» (ELKB2). Nolanahi ere, zaintza-sarearen lehen fasea boluntarioek deiak egitea zen, beharizan-egoerak detektatzeko. Hala ere, boluntario batzuek esan zidaten zaharren sektorearekin izandako lehen harremanetan haiek ez zutela ezer behar:

No mire si le llamo es para un tema de si necesita tal no sé qué y si no le importa le quiero hacer un par de preguntas» [...]. Oye y todo el mundo te decía al principio: «No si no necesito nada estoy muy bien» [...]. Era muy curioso [...]. Más tarde también me pedían cosas como medicamento o así, pero en principio parece como que no quieren descubrir su vulnerabilidad (ELKB1).

Bestalde, zaintza-sarearen bigarren fasean (Otaegi, Aizpea, 2020)⁴ sarturik, boluntarioek txostenak egin behar izan zituzten Arreta Zerbitzuak (Babes Zibilaren bidez gehienbat) eta Gizarte Zerbitzuek jasotzeko «dei horiek, eskaerak egiteko: janaria eman, botikinak, bakardade-egoerarenak...» (ELKP1). Horri dagokionez, berdintasun-teknikariak esan zidan emakume zaharren egoera pandemiaren ondorioz larriagotu zela: «Pandemiaren ondorioak guztiok bizi ditugula modu batean edo bestean, baina beraienak, batez ere medikalizazioak, emakume horien medikalizazioa askoz ere areagotu da pandemiaren ondorioz, eta depresioak eta... izugarria» (ELKT). Hartzaileetako batek, bere esperientzietatik, bakardade-egoerak eta medikalizazioen okertzea berresten ditu:

Me ha hecho mucho daño. He perdido mucho de mi... autonomía y todavía que no puedo estar tranquila en los sitios, que no puedo ir tranquila, ni al bingo, ni las cartas, que hacíamos cumpleaños en diferentes sitios y ahora nada... (ELKH1)

4. Elkarrizketatutako gehienek (teknikaria izan ezik) ez dituzte bi fase hauek bereizten, uste baitute sareak etenik ez zuela izan.

Hombre pues yo creo que el confinamiento nos ha partido a todos la vida por la mitad. Antes del confinamiento íbamos al hogar del jubilado [...]. Hasta la tarde [...]. Esa era nuestra vida. Pero ahora con el lio este que hemos tenido ya se nos ha roto todo [...]. Ahora nos han roto un poco (ELKH3).

Oro har, zaintza-sareko prozesu osoaren balorazioa positiboa izan da elkarrizketatuen ikuspegitik. Elkarrizketetan jaso ditudan esperientziez gain, Partaidetzako zinegotziak hau esan zidan: «Boluntarioen aldetik ba mezu asko jaso genituen eskertuz eta helduen kasuan asko pertsonalean baino asko ere seme-alaben partetik» (ELKP2). Batez ere, boluntarioen balorazioa azpimarratzen du: «Gero aldiz balorazio batzuk pasa genituenean jo, hori, boluntarioen feedback-a izan zen oso positiboa. Oso positiboa izan zen alde emozionaletik» (ELKP2).

Hala ere, hartzailleetako batek uste izan zuen boluntarioen inplikazioa, oro har, «un poco escaso» (ELKH3) izan zela. Pertsona horrek elkarrizketaren hasieran adierazi zidan zaintza-sarean ez zuela parte hartu: «A mí no me llaman. Me tienen olvidada. Llevo aquí un montón de años, 62 y a mí no me ha llamado nadie» (ELKH3). Gero, ikusi dugun bezala, parte hartu zuela gogoratu zuen, baina bere boluntarioarekiko loturari buruzko balorazioa ez zen oso positiboa izan: «Una conversación no sé un poco para mi rara, sabía más yo de su vida que ella de la mía. Porque yo no estaba por la labor de decirle a nadie mi vida por teléfono. La realidad es esa» (ELKH3).

8.2. Zaintza-sarearen potentzialtasunak

Arestian aipatzen joan den bezala, ikerlan honen abiapuntua teoria feministaren zaintzaren kontzeptua da. Horregatik, zaintza-sarearen potentzialtasunak *betaurreko* horien bidez aztertuko dira. Beste ikuspegi batzuk, hala nola Gizarte Zerbitzuenak edo Partaidetzarenak, egokiak izango lirake, baina aukeratu den bidea hau da. Horrelaxe hiru azpiataletan bereizi ditugu potentzialtasun horiek:

1. Zaintzaren nozioan (*Zer datorkizu burura «zaintza-lanak» esaten dudanean? galderari erantzunez*).
2. Zaintza eta etxeko lanen banaketan (*Zure ustez, zer lortu du ekimenak komunitateko zaintzaren arloan? Uste duzu zaintza-lanak ikusaraztea lortu duela?*).
3. Eta sarearen jarraitutasunaren inguruan (*Uste duzu ekimen hau berriro aktibatu beharko litzatekeela?*).

Lehenengo eta behin, ekimen honek hainbat lorpen eskuratu ditu, baina horietatik esanguratsuena *bakardade ez hautatuko* egoeren antzematea izan da; Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak esan zidan bezala, «Zaintza Sare Publiko-Komunitarioari esker eta, batez ere, boluntarioen lanari esker, bakardade edo *soledad no deseada* egoera batzuk» (ELKP) detektatu zituzten. Are gehiago, haien hitzetan: «[kasu hauek] bai jaso ditugula Gizarte Zerbitzuetan. Eta hor bai artikulatzen dela intervención socio-educativo bat pertsona horiekin» (ELKP).

Elkarrizketatu nituen sareko hartzailleak udaleko langileen interbentzio soziosanitarioa jasotzen ari ziren. Bi pertsona horiek astero elkartzen ziren hartzaille

horiekin, haiek zaintzeko eta haietaz arduratzeko. Haien lanari dagokionez, hartzaileek jasotako esperientzietako bat honako hau izan zen:

Yo ya te digo que con el asistente he congeniado y le he contado cosas que no he contado a otros [...]. Y menos mal, porque tu al menos te has enterado que estoy en el mundo [...]. Ahora yo de momento me han dado un nieto. Algo he ganado de la pandemia (ELKH3).

Ausartuko nintzateke esatera behaketa honek egiaztatzen duela horrelako ekimenen bidez zaintza zentroan jar daitekeela. Are gehiago, hitz egin nuen boluntario guztiek (baita Berdintasun/Partaidetzako zinegotziak ere) adierazi zidaten azkenean aurrez aurreko harremanak finkatu zituztela konfinamenduaren ondoren: «He llamado... y todavía lo sigo llamando a alguno, hay algunos que no pero otros que sí» (ELKB1). Boluntario berak generoa bereizi zuen: «Los hombres son más reacios, más... las mujeres enseguida se abren a hablar» (ELKB1). Halere, hartzaileek ez zuten horrelakorik berretsi; agian *esku-hartze sozioedukatio*boan jada zeudelako.

Zentzu horretan, berdintasun-teknikariak esan zidan zaintza-sarearen lorpenetako bat zubiak eraikitzea izan zela, haren hitzetan: «Instituzioaren eta herritarren arteko zubiak [...]. Baina egia da iristen zarela jende batengana. Eta nik uste zubi berriak eraiki ditula jende berriarekin» (ELKT). Edonola ere, zubigintza edota harreman-ezartze horiek gauzatu zituzten norbanakoek ez zuten zaintza kontzeptuaren nozio bera; praktikan egiten ari zirena zaintza zen arren. Hona hemen *Zer datorkizu burura zaintza edo zaintza-lanak esaten dudanean?* galderari emandako hainbat erantzun:

Es curioso, pero gente mayor. Y ya sé que hay gente joven que también lo necesita [...]. Pero no se cuando te hablan de cuidados siempre te vienen a la mente gente mayor. No sé por qué (ELKB1).

Ja... ba... Laguntza [...] kasu hontan, ba adineko jendearekiko (ELKB2).

Neri, zaintza hitza ulertzen dut: ba el cuidado eta... Meh, bah, meh, ez zait gustatzen gehiegi. Nik amarekin, hil zela duela 5 urte, adibidez zaintzen nun nik? Ba bai, behar bazun hau edo bestia, baina gehiena zan berarekin egon eta far egin, hitz egin, bizitzea beraiekin [...] ta bueno holako jendearekin telefonoz... Ba zaintza? Ba beno [...] besterik gabe zen hitz egitea [...] (ELKB3).

Dena den eta dena ez den zerbait da. Beno ba gure bizitza erdibitzen duena, esango nuke: jaiotzen geanetik edo jaio aurretik ere amen sabelean gaudenetik hil arte behar degun zerbait da [...]. Argi eta garbi emakumeen bizkar gainean ba historikoki erori izan den edo lagatu izan degun funtzio bat izan da» (ELKP2).

Preocuparte, cómo vive, dónde, con quien va... lo que hemos hecho por lo hijos. Te has preocupado de sus amigos, de su colegio, de su vida... ¿pues lo mismo nos toca ahora a nosotros no? Ver como vives, donde y con quien. Por lo menos saber que te rodea. Digo yo, no se vosotros (ELKH3).

Oro har, elkarrizketatuei adinekoak etortzen zaizkie burura zaintzari buruz galdetzen zaienean; zaintzaren nozioa laguntzarekin lotzen duten era berean. Bide horretatik jarraituz, galdera hau egin nien: *Zure ustez, zer lortu du ekimenak*

komunitateko zaintzaren arloan? Uste duzu zaintza-lanak ikusaraztea lortu duela?
Hona hemen jaso nituen hainbat erantzun:

Pero la gente no, creo que no está concienciada todavía. mucha gente con la que me junto no sabe ni que yo lo he hecho, te voy a decir... (ELKB1).

Bere momentuan ba adineko jendeareztat bai baina gero... Adineko jendea inguru ez duenak ba segur aski ez du jakingo horrelako zerbait martxan zegoenik (ELKB2).

Bai, nik uste baietz [...]. Eta nik uste zaintza-sare hau balio izan zuna jendeak jabetzeko y dices: ostia, hemen badaukagu erronka bat. O sea neretzat ba hori, bai jarri zuen gainean (ELKP1).

Bai, baino ez nuke esango zaintza lanak hainbeste ikusarazi lortu duela baino bai zaintzaren beharra edo terminoa eta garrantzia segur aski bai [...] lehenen ez zen hainbeste zaintzaz edo zaurgarritasunaz hitz egiten eta horrek Pandemiak ekarri du onerako (ELKP2).

Hombre no porque en alguna cosa... en alguna cosa la veo en alguna otra no. Mira ahora mismo lo que tengo yo, lo que tenía y lo que me han hecho [...]. No se nos escucha (ELKH1).

Hombre. ¿La pandemia ha terminado o no ha terminado? Ahora yo de momento me han dado un nieto [gizarte-laguntzailea]. Algo he ganado [...]. Pero oye la falta que yo tenía ya no la tengo ahora. Por lo menos un día a la semana sé que estás tú (ELKH3).

Bestalde, sarearen berraktibazioari buruz galdetuz gero, bai boluntarioek bai hartzaileek prest egongo lirakekeela berriz parte hartzeko adierazi zuten. Egia da, ordea, nirekin elkarrizketatzeko baietza eman zidaten boluntarioek boluntariotzan bidea egina zeukatela (elkarte kulturaletan, hezkuntzan eta auzo-elkarteetan); eta hartzaileen aldetik haiek izan ziren baliabide gehienak jaso zituztenak (hartzaileen taldetik esku-hartzea jaso zutenak, alegia). Hala eta guztiz ere, marko publiko-komunitario horren herri-ulerkera frogagarria izan daitekeela iruditzen zait; elkarrizketatuetako batek esan zidan bezala: «Sí, es cierto que hubo un tiempo, lo más duro de la pandemia, en la que se volcó mucha gente. Llamábamos muchos y muchas veces» (ELKB1).

Zinegotziak eta udal-teknikariak iritzi ez hain baikorra adierazi zuten sarearen berraktibazioaren inguruan. Adibidez, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak esan zidan: «Bai, ez, izan daiteke. Gehiago da zertarako. Ze bere meritua dauka 600 boluntario baino gehio lortzeak baino boluntario kopuru hori eman zen momentu batean non gehiengoak ez zegoela lanean» (ELKP1).

Berdintasun/Partaidetzako zinegotziak beste ikuspegi bat eskaini zidan zaintza-sarea berriz aktibatu beharko balitz, zer helbururen arabera ardaztu beharko litzatekeen galderaren harira: «Orduan hortik ba guk mahai gainean askotan euki degu: hartu, ez berrartu, nola berrartu, zertarako berrartu... Ez agian zaintza-sarea publiko-komunitarioa bere horretan, bete zuen funtzio horretan, ze funtzio hori bete zuen orduan» (ELKP2). Berdintasun-teknikariaren ustez, sarea berraktibatze

orduan boluntarioen jarraipenari eustea funtsezkoa izango litzake, batez ere ekimenaren bigarren fasean.

8.3. Zaintza-sarearen mugak

Analisiaren azken atal honetan zaintza-sarearen mugak aztertuko dira eta horretarako bi gauzari so egingo diegu: alde batetik, zaintza-sarea ekimen gisa aztertuko dugu (zertan akats egin zen, beste era batera esanda), eta, bestetik, zaintza-sarearen ideari jarriko diogu arreta. Azkenengo horretan elkarrizketatuei galdetu zaie zaintza-lanen horniduraren orekaren inguruan, Administrazio publikoaren eta komunitatearen testuinguruan. Espresuki galdera hau helarazi zaie: *Egokia iruditzen al zaizu herritarrak modu horretan inplikatzeari komunitateko zaintzetan edo Administrazioak karguaren zati handiena hartu beharko lukeela uste duzu?*

Hasteko, esan beharra dago testuinguru pandemikoak zeresan handia izan zuela zaintza-sarearen sorkuntza eta garapenean; izan ere, behar jakin baten (zaintza-lanak) erantzun bezala jaio zen. Eta horrek antolaketan eragin zuzena izan zuen, Berdintasun/Partaidetzako zinegotziaren hitzetan: «Klaro izan zen dena oso azkarra, momentuan dena sortu behar zen ez... ez geneukan datu-baserik... orduan beno, nolabait hain esperimentalak izan zenez ba kudeaketan nik hutsune asko identifikatu nittuen» (ELKP2).

Arestian esandakoarekin lotzen da ondorengo hau, Berdintasun/Partaidetzako zinegotziak hau aitortu baitzidan: «Segur aski hor gelditu ziren ez hain zainduak, nire iritziz, boluntarioen parte hori. [...] patxada batekin egin izan bagenu pixka bat zuekiko harreman hori iraunkorragoa, gertuagoa izan zittekeen» (ELKP2). Antzeko iritzia jaso nuen beste boluntario baten ahotik ere:

Nik hor bai ikusi detena da udala ba, zerrenda pasa eta eskuak garbitu [...]. Baina bai hor ere ikusi det, ez dutela bukatu udalekoek, ba ez dakit... galdetu edo zerbait. Ez dut ezerre eskatzen baino... «Bukatuzute? Edo, gauza jada normaldu da?» edo ez dakit... (ELKB2).

Horrekin lotutako beste alderdi bat komunikazioa da. Izan ere, elkarrizketatu nituen boluntarioen iritzi orokorra izan zen zaintza-sarearen ekimena ez zela behar bezala iragarri. Hona hemen hainbat erantzun:

Igual tendría que estar más publicitado. Salió en algunos periódicos y tal pero no sé [...]. Pero no sé si a la ciudadanía le llevo, tengo mis dudas por la experiencia de cuando hablas en las reuniones y en las relaciones sociales y así. Cuando se empieza a hablar es un tema que nunca sale (ELKB1).

Baino karo, orokoki pentsatzen det hemen, herriaz ari naiz, iruditzen zait ez dela asko kontatzen egiten duena bakoitza. Jendea gehiago jakin beharko luke egiten dena (ELKB3).

Testuinguruarekin lotutako beste alderdietako bat konfinamendua bera da. Ildo horretan, boluntarioetako batzuek azpimarratu dute zaintza-sarean parte hartu zuten boluntarioen kopurua etxean geratzeko derrigortasunaren arrazoia izan zitekeela: «Ze bere meritua dauka 600 boluntario baino gehio lortzeak baino boluntario kopuru

hori eman zen momentu batean non gehiengoa ez zegoen lanean» (ELKP1). Berdintasun-teknikariaren hitzak izan ziren: «Baina ere zure egunerokotasunak ez dizu jaten denbora guztia, ez? Baduzu denbora, etxean, ezta? Eta gauza pila bat alde batera utzi dituzu, eta izan daiteke zure lehentasunezko bide bat [zaintza]» (ELKT).

Beste ikuspuntu batetik, testuinguru horrek eragin handia izan zuen boluntarioen eta hartzaileren arteko harremanetan. Elkarrizketatu batzuek aitortu zidaten telefonoz harremanetan jartzeko modua mugatua iruditzen zitzaizela:

Oso... beharbada, **hotza**. Hotza ze online eta punto pelota (ELKB2).

Pues ba azkenean hori zen ebai dena telefonoz zela. Ez genekien beste aldean zein zan (ELKB3).

Pero realmente yo creo que a las personas mayores se nos trata a todos por igual y es una equivocación porque no todos somos iguales. Si a una persona no le gusta hablar de su vida, busca otras cosas. o sea, no me hables de tu vida, si yo tengo suficiente con la mía [...]. No te vale solamente con que hables con una persona. Se hubieran preocupado de como vivías, donde estabas, con quien estabas... (ELKH3).

Antzeman daitekeen beste faktore mugatzaile bat Administrazio publikoaren barne-disfuntzioak dira. Horrekin adierazi nahi dudana da erakunde publikoek askotan jasaten dituzten *nahi-eta-ezin* egoera horiek, eskumenak edo barne-egitura direla medio. Adibidez, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziaren aldetik zaintza-sarearen esperientzia irakaskuntza handia izan zela haientzat «erakutsi zuelako instituzioak ze muga dituen eta noraino iris daitekeen planteamendu publiko komunitarioa baten barruan» (ELKP1).

Tokiko erakunde publikoaren barne-mugei dagokienez, Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak berak adierazi zidan pandemiaren eztanda egin zenean «paradoxa» (ELKP1) bat gertatu zela herriko zaugarrienen kudeaketan, zeren eta zaintzalanak eman dituzten udal-zerbitzuen kudeaketa Babes Zibila Sailaren esku gelditu zelako eta ez Gizarte Zerbitzuetan. Haren aburuz, «lana egiten dutelako oso egoera delikatu eta estremoekin, oso zelosoak direlako bere lanarekiko, baina beti izaten dira nahiko zerbitzu bunkerizatuak» (ELKP1).

Era berean Berdintasun/Partaidetzako zinegotziak adierazi zuen «oso frustantea izan [zitzaizela] administrazioa mugitzea ohiko makineriatik edo logikatik» (ELKP2). Aitortu zidan, gainera, «teknikari batzuen gainetik pasatu behar izan genun [...] baino es que esan genun: ezin degu egon hiru aste zai zuek ebaztera, es que ezin degu, es que beharra orain dago» (ELKP2). Horren harira, hartzailleetako batek hau esan zuen:

Pero mira, una de las cosas que no veo muy normal es que cuando pides una ayuda y tarden dos meses y todavía no hemos terminado. Porque lo normal es que cuando pides una ayuda es que la necesitas y que es urgente. Que se enteres si realmente lo pides por comodidad o lo pides por necesidad. Son dos cosas muy distintas (ELKH3).

Bestalde, beste barne-muga bat udalaren barne-antolakuntza izango litzateke. Marko teorikoan ikusi genuen bezala, Errenteriako Udalak antolaketa berezi bat du, non hainbat ohiko sail biltzen dituen *Antolaketa, Lurralde eta Herritarrak* gisako eremuetan. Horri dagokionez, Berdintasun/Partaidetzako zinegotziak lanketa interdisziplinarioa kostatu zitzaiela esan zuen; izan ere, «hutsune asko ditugu[lako] gaur egun oraindik askotan, nahiz eta horrelako espazioak sortu, dauden pertsonal teknikoak eta politikoak ere ba txip asko eta logika asko aldatzea ekartzen du» (ELKH3). Era berean Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak hauxe aitortu zuen: «Egon zen lehen lerroan edo postu inportanteetan lan egiten zuten funtzionario publikoak ulertu zutena: que esta peli no es mía, que esto no está en mis funciones» (ELKP1).

Azkenik, arestian azaldu den legez, elkarrizketatuei zaintza-lanen udala-komunitatearen arteko erantzunkidetasunaren inguruan galdetu zaie. Jasotako erantzunak batera zihoazen: gehienek adierazi zuten Administrazioarena izan behar zuela zaintza lanen karga nagusia. Hona hemen jasotako erantzun batzuk:

Yo creo que el ciudadano debería de ser un mero colaborador. El que quiera hacerlo lo hace y el que no, no... [...] El ayuntamiento nunca debería decir: bueno si la gente no quiere ayudar no lo haces, no perdona, tú tienes obligación de hacerlo te ayuda la gente o no [...] (ELKB1).

Eta hori azkenean neurria da, noraino sartu behar dan udala, ordainduz-eta, eta noraino herritarrok badaugu lekua holakoetan aritzeko eta laguntzeko gure gizartean, gure inguruan... Horrek ekartzen duen gauza on guztiekin: herriari ematen dion kohesioa, jendea kontent geratzen dela egiten duenarekin (ELKB3).

Pelota hori [Zaintzarena] bakarrik hartzen badu udala batek edo instituzio publiko batek edo daukazu presupuesto millonario bat edo oso zaila da kasu horiei behar den bezela aurre egitea (ELKB3).

Zer egin behar du udalak eta zer eskatu behar degu herritar batzuei beraien borondatez? Orduan beti zegoen kontu bat zen, eta hor marra oso fina izan daiteke, udal batek soldatapean asumitu beharko lukeen hori ezin degu herritarren bizkarrean utzi [...]. Orduan galdera hori oso presente izan genuen, filtro hori, sekula ere ez eskatzea herritar bati Administrazio publikoak soldatapean asumitu beharko lukeena (ELKP2).

Zaintzak, instituzioaren ardura bada hein handi batean baina komunitatearena ere. Eta nola egiten duzu komunitate alde hori aktibatuzko? [...] Nik uste ardura instituzioa duela baina beharrezkoa dela komunitateak zaintza lan horietan (ELKT).

Yo creo que la administración tiene más obligación sobre los cuidados. Porque si tú has pagado tus impuestos y todo lo que haya que hacer, ahora de mayor justo es que te devuelvan algo [...]. Se devuelve de todas las maneras, no me refiero a dinero solo eh, se devuelve de muchas maneras. Cariño, amistad y muchas cosas (ELKH3).

9. Ondorioak

Errenteriako Zaintza Sare Publiko-Komunitarioa herriko zaugarrienei laguntzeko ekimena izan zen. Testuinguru pandemiko zehatz batean, konfinamenduan hain zuzen ere, sortu eta garatu zena. Izendatu daitekeen (ikerketa honek ezin baitu

baieztatu) marko publiko-komunitario bati esker ekimena aurrera atera zen, antza denez agente gehienen iritzia positiboekin.

Zaintza-sare jakin bat zaintza krisi batean kokatzen dena. Non euren bizitzan zehar zaintzaile rola hartu dutenek (emakume gisa eta ama gisa) zaintzak jasotzeari utzi zioten nahitaezko konfinamendu baten ondorioz. Zaintza hori boluntarioen aldetik jaso zuten, nahiz eta euren iritzia «ez da zaintza, laguntzea baizik» izan, hitz egitearen eta kezkatzearen bitartez; *ongizate psikologikoa eta emozionala ematen zuten jarduerak* izan baitziren.

Era berean, beste ondorioetako bat da Sarea abian jartzeko faktore nagusietako bat ekonomikoa izan zela. Arduradun politikoei aipatu zuten bezala (atal teorikoan ere aipatzen duguna), zaintza-lanak, Erreterria bezalako eskala batean ere, asko kostatzen dute. Are gehiago, ausartuko nintzateke baieztatzena zaintza lanen karga tradizionalki eremu pribatura (emakumeen gain, noski) baztertua izan denez, oraindik ez gara gai zaintza lanen garrantziaren inguruan kontziente izateko. Dena den, argi dagoena da zaintzaren nozioa ez da errotuta dagoen zerbait, ez herri ulerkeran, ez politika publikoen diseinuan (nabarmentzekoa baita nola Sarearen sorkuntza Alkatetzatik abiatu, Partaidetzatik garatu eta Gizarte Zerbitzuetan bukatu zen)

Zorionez, zaintza-sareari esker bakardade ez hautatuaren egoerak ikusarazi egin ziren, eta gero Gizarte Zerbitzuak esku-hartzeak abiarazi zituzten. Hala eta guztiz ere, elkarrizketatuen iritzia nahikotxo ezkorra da; iruditzen baitzaie zaintza-sareak ez zuela zaintza-lanak ikusarazi lortu. Nahiz eta hainbat aitortu Pandemia hasi zenean zaintza erdigunera pasa zela, badirudi eztanda horren potentzialitateak ez zirela behar bezala kudeatu

Bestalde, elkarrizketatutako hartzaileen eta boluntarioen aldetik prest egongo liriteke berriz sarean parte hartzeko berraktibatuko balitz. Hala ere, horrek ez du esan nahi boluntario guztiek balorazio ona dutenik, ezta boluntario izandako guztiek berriro parte hartuko luketenik ere. Baina bai *kapital sozial* nagusiko herri batean egon genezakeela. Ezin dugu ahaztu behar elkarrizketatutako boluntarioak adinekoak ere zirela, eta boluntariotzan ere trebatuta zeudela. Konfinamendu osteko egoera batean ikusteke dago nolakoa izango zela herritarren partaidetza.

Era berean, politikarien aldetik ere *zer-pentsatzeak* eta zalantzak antzeman nituen Sarea berraktibatzearen inguruan. Izan ere, alde batetik argudiatzen zuten zaintza-sareak helburu jakin bategatik jaio zela, eta hura jada bete zuela garai hartan; beraz, beharrezkoa litzateke planteatzea zer funtzio izan lezakeen berriz abian jarriko balitz. Horri dagokionez, hartzaileetako batek adineko emakumeen heterogeneotasunean sakondu zuen, esanez adineko pertsonen beharrak askotarikoak direla. Orduan, zentroan adineko pertsonen heterogeneotasuna izan gabe zaintza arloko praktikaren bat martxan jartzea ez litzateke egokia izango. Eurak baitira protagonistak eta ez erabiltzaileak xumeak.

7. Bibliografía

- Azpiazu Carballo, Jokin (2014). Análisis crítico del discurso con perspectiva feminista. In Irantzu Mendia Azkue (argtz.), Marta Luxán (argtz.), Matxalen Legarreta (argtz.) et al., *Otras formas de (re)conocer: Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista* (111-123. or.). Hegoa Fundazioa. https://www.researchgate.net/publication/322129297_Otras_formas_de_reconocer_Reflexiones_herramientas_y_aplicaciones_desde_la_investigacion_Feminista
- Bellota, Unai (2021). *RED DE CUIDADOS PÚBLICO-COMUNITARIA DE ERRETERIA: Respuestas colectivas a la crisis provocada por la Covid-19*. Gradu Amaierako Lana. Euskal Herriko Unibertsitatea. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/58952/TFG_Bellota_Rodriguez_Unai.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Bergantiños, Noemi eta Ibarra, Pedro (2018). El Estado De La Cuestión: Perspectiva Y Propuestas Frente A La Crisis De La Democracia. In Noemi Bergantiños eta Pedro Ibarra (koord.), *Respuesta y Propuestas de Regeneración Frente a la Crisis de la Democracia* (11-35. or.). Tecnos.
- Bourdieu, Pierre (1986). The forms of Capital. In John G. Richardson (argtz.), *Handbook of theory and research for the sociology of education* (240-268. or.). Greenwood.
- Coleman, James S. (1988). Social Capital in the Create of Human Capital. *American Journal of Sociology* 94, 95-120. <https://www.socialcapitalgateway.org/content/paper/coleman-j-s-1988-social-capital-creation-human-capital-american-journal-sociology-94-s>
- Coleman, James S. (1990). *Foundations of Social Theory*. Harvard University Press.
- Erreterriako Udala (2022). Koordinazio Gune Orokorra (KGO): izen aldaketa (lehen Zuzendaritza taldea) eta beste alderdi batzuk. Dekretu zenbakia 275, Espediente zenbakia 2022IPOL0002. <https://gardentasuna.erreterria.eus/app/uploads/sites/8/2022/02/2022-KoordinazioGuneOrokorra.pdf>
- Esteban, Mari Luz (2017). Los cuidados, un concepto central en la teoría feminista: aportaciones, riesgos y diálogos con la antropología. *QUADERNS-E*, 22(2), 33-48. <https://raco.cat/index.php/QuadernselCA/article/view/333111>
- Ezquerria Samper, Sandra (2011). Crisis de los cuidados y crisis sistémica: la reproducción como pilar de la económica llamada real. *Investigaciones Feministas*, 2, 175-194. <https://revistas.ucm.es/index.php/INFE/article/view/38610>
- Federici, Silvia (2010). *Calibán y la bruja. Mujeres, cuerpo y acumulación originaria*. Traficantes de Sueños.
- Fernández Buey, Francisco (2009). Crisis de civilización. *Papeles de Relaciones Ecosociales y Cambio Global*, 105, 41-51. https://www.fuhem.es/papeles_articulo/crisis-de-civilizacion/
- Foucault, Michael (1999). *Estética, ética y hermenéutica* [Gabilondo, Ángel (itzle.)]. Serie Obras Esenciales, Vol. III. Paidós.
- Fraser, Nancy (2000). ¿De la redistribución al reconocimiento? Dilemas de la justicia en la era «postsocialista». *New Left Review*, 0, 126-155. <https://newleftreview.es/issues/0/articles/nancy-fraser-de-la-redistribucion-al-reconocimiento-dilemas-de-la-justicia-en-la-era-postsocialista.pdf>
- Fraser, Nancy (2016). Las contradicciones del capital y los cuidados. *New Left Review*, 100, 111-133. <https://newleftreview.es/issues/100/articles/nancy-fraser-el-capital-y-los-cuidados.pdf>
- Gilligan, Carol (1982). *In a Different Voice: Psychological Theory and Women's Development*. Harvard University Press.
- Goikoetxea, Jule; Miralles, Nora; Garai, Estitxu eta Etxeberria, Lore (2017). *EAEko Demokrazia Patriarkala*. Emakunde.

- Haraway, Donna (1995). *Ciencia, cyborg y mujeres. La reinviención de la naturaleza*. Ediciones Cátedra.
- Harding, Sandra (2004). *Ciencia y Feminismo*. Morata.
- Ibarra, Pedro (2011). *Democracia relacional*. Centro de Estudios Políticos e Institucionales.
- Kergoat, Danièle (1998). La Division du travail entre les sexes. In Jaques Kergoat, Josiane Boutet, Henri Jacot eta Danièle Linhart, *Le Monde du travail* (319-324. or.). La Découverte/Syros.
- Lin, Nan (2001). *Social Capital. A Theory of Social Structure and Action*. Cambridge University Press.
- Mair, Peter (2013). *Gobernando el vacío*. Alianza.
- Marchioni, Marco (2009). Dossier de formación: «Intervención comunitaria. Instituto Marco Machioni. http://marianootecor.cat/wp-content/uploads/2014/03/Dossier-Formación_MM.pdf
- Otaegi, Aizpea (2020/03/15). *Koronabirusaren larrialdia dela-eta, laguntza neurriak eta boluntarioei deia* [online bideo-fitxategia]. <https://www.youtube.com/watch?v=V6GIqhq8GAY>
- Otaegi, Aizpea (2020/11/11). *Zaintza Sare Komunitarioa berrir martxan jartzea eta boluntarioei deia* [online bideo-fitxategia]. <https://www.youtube.com/watch?v=uESoEoGxDEg>
- Pateman, Carole (1995). *El contrato sexual*. Serie Pensamiento crítico/pensamiento utópico. Colección Filosofía Política, 87 [Femenías, Maria Luisa (itzle.)]. Anthropos
- Pérez Orozco, Amaia (2006). *Perspectivas feministas en torno a la economía: el caso de los cuidados*. Consejo Económico y Social.
- Pérez Orozco, Amaia (2014). *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Colección Mapas, Traficantes de Sueños. <https://traficantes.net/libros/subversion-feminista-de-la-economia>
- Putnam, Robert (2011). *Para que la democracia funcione: Las tradiciones cívicas en la Italia moderna* [Gordo, Victoria (itzle.)]. CIS.
- Rousseau, Jean-Jacques (1983). *El contrato social*. Sarpe.
- Subirats, Joan (2011). *Otra sociedad ¿otra política?: De «no nos representan» a la democracia de lo común*. Icaria.
- Subirats, Joan (2018). Política, Representación y Subjetivación. Dilemas Democráticos. In Noemi Bergantiños eta Pedro Ibarra (koor.), *Respuestas y Propuestas de Regeneración Frente a la Crisis de la Democracia* (39-49. or.). Tecnos.
- Van Dijk, Teun A. (2012). *La ciencia del texto: un enfoque interdisciplinario* (Hirugarren edizioa). Paidós Comunicación bilduma, 5. Paidós. <http://www.discursos.org/oldbooks/Teun%20A%20van%20Dijk%20-%20La%20Ciencia%20del%20Texto.pdf>
- Wodak, Ruth eta Meyer, Michael (2003). *Métodos de análisis crítico del discurso* [Fernández, Tomás eta Eguibar, Beatriz (itzle.)]. Serie CLA-DE-MA. Gedisa. https://www.researchgate.net/publication/275634501_Metodos_de_Analisis_Critico_del_Discurso
- Zuñiga Ruiz de Loizaga, Martín, eta Arrieta Frutos, Félix (2021). Analizando la función de la comunidad en el sistema de organización social de los cuidados en Euskadi. *Zerbitzuan*, 74, 65-81. http://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Analizando_funcion_comunidad.pdf